

**MINECOren PBI LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTEN PERTSONEN
MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZAK: 2015eko DEIALDIA
([2016/08/27ko EAO](#))**

Deialdiaren helburua:

Finantzazioa ematea, prestakuntza bidean dauden ikertzaileek 2017an egonaldiak egin ditzaten atxikita ez dauden beste I+G zentro batzuetan; horrela, prestakuntza hobetzeko eta beren tesia sustatzeko jarduerak egin ahal izan ditzaten.

Onuradunak:

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak atxikita dituzten I+G zentroak, baldin eta ikertzaile horiek laguntza lortu badute doktoreak prestatzeko doktorego aurreko kontratueterako 2013ko eta 2014ko deialdiren batean, edo ikertzaileak prestatzeko aurreko deialdiren batean, MINECOren PBI azpiprogramen esparrukoan, edozein dela ere ikertzaile horien egoera juridikoa, beka edo kontratua.

Laguntzen ezaugarriak:

Bi eta lau hilabete arteko egonaldiak eskatu ahalko dira, Espainiako edo atzerriko I+G zentro publiko zein pribatueterako. Egonaldiak aldi bakar batean egingo dira, 2017an.

Eskaerak aurkezteko epea:

- ✓ Eskatzaileek: **2016ko irailaren 6tik 19ra arte, 15:00etara arte.**
- ✓ UPV/EHUK atxikipen zentro gisa eskaerak balioesteko epea: 2016ko irailaren 22ko 15:00etara arte.

Eskaria egiteko prozedura:

Eskariak bitarteko elektronikoen bidez bete eta aurkeztu behar dira nahitaez, [Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak bere egoitza elektronikoa](#) horretarako prestatutako bideak erabilita.

Hautagaiak, formularioa bete ondoren, baliozkotu eta telematikoki bidaliko du.

Telematikoki bidali ondoren, sinatu egingo du, izan sinadura aurreratuko sistema baten bidez, izan eskuz idatzita.

UPV/EHUⁿ EGIN BEHARREKO IZAPIDEA:

Aplikazioak automatikoki sortuko dituen dokumentuak hona bidaliko dira:

- ✓ **Posta elektronikoz:** dokumentuak eskaneatuta bidali behar dira lehenago, rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbidera.
- ✓ **Erregistro bidez:** paperezko agiri orijinalak Ikerketa Errektoreordetzako Giza Baliabideen Atalera bidaliko dira.

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

Telefono zenbakia: 94 601 80 08. E-maila: rrhh-inves.dgi@ehu.eus

Ekonomia eta Lehiakortasuna Ministerioarekin harremanetan jartzeko:

- ✓ Telefonoz: 902 218 600 edo 911 754 175
- ✓ Posta elektronikoz. [Formulario](#) honen bidez deialdiari buruzko kontsultak egiteko, eta [honako honen](#) bidez informatika aplikazioari buruzko kontsultak egiteko.